



Azpeitiko Udala

**ANTXIETA ARKEOLOGIA TALDEA ELKARTEARI DIRULAGUNTZA ZUZENA EMATEA 2025EKO IZARRAITZ AIRE ZABALEKO IKERKETA ARKEOLOGIKOAK EGITASMOA GAUZATZEKO ZUZENENKO DIRULAGUNTZA ( 25-7D / 2025DZKT0003 )**

Azpeitian, 2025eko otsailaren 19an

**BILDURIK**

Alde batetik, **NAGORE ALKORTA ELORZA**, NAN 72.471.832-M duena, Azpeitiko Udalaren Alkate-Udalburua,

Bestetik, **JOSE IGNACIO ARRIETA UNANUE**, NAN 72.434.158-M duena, **ANTXIETA ARKEOLOGIA TALDEA ELKARTEAREN ordezkaria** (IFZ: G20420816).

**BERTARATU DIRA**

Lehena, Azpeitiko Udalaren ordezkari-lanetan, Udalbatzak 2023ko ekainaren 17an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez egintza honetarako baimendua.

Eta bigarrena, **ANTXIETA ARKEOLOGIA TALDEA ELKARTEAREN** ordezkari-lanetan, bere organo gorenak 2022ko abenduaren 16an egindako bilkuran emandako ahalmenekin.

Bi aldeek aitortzen diote elkarri agiri hau izenpetzeko eta jarduteko behar den gaitasun juridikoa eta honakoak azaltzen dituzte:

**AURREKARIAK**

2025eko urtarrilaren 23an, Antxieta Arkeologi Taldeak dirulaguntza eskaera egin dio Azpeitiko udalari Izarraitz Aire Zabaleko Ikerketa Arkeologikoak aurrera eramateko.

6/2019 LEGEA, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearenaren oinarri dira Euskal Herriko Autonomia Estatutuak 10. artikuluan, 17. eta 19. zenbakietan, EAERI emandako kultura-arloko eskumenak. Hain zuzen, 17. zenbakian xedatutakoarekin bat, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du kultura-arloan. Bestalde, lehen aipatutako 10. artikulua 19. zenbakiak erkidego honi ematen dio ondare historiko, artistiko, monumental, arkeologiko eta zientifikoaren gaineko eskumen eskusiboa, eta EAEk bere gain hartzen du Estatuak ondare hori esportazioaren eta espoliazioaren aurka babesteko ezarritako arauak eta betebeharrak betetzea.

Azaroaren 25eko 27/1983 Legean (Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremani buruzkoa) ezarritako eskumen-araubideari dagokionez, 6. artikulua xedatzen du EAEko erakunde komuneko eskumena dela Autonomia Estatutuaren arabera Erkidego honi dagozkion gai guztiei buruz legeak egitea edo lege horiek betearaztea, non eta gai horiek, estatutu horretan, aipatutako legean edo ondorengo lege batzuetan, ez zaizkien lurralde historikoetako foru-organoei aitortzen edo esleitzen. Arau horretako bigarren zenbakiak adierazten du lege-mailako arauak emateko ahalmena Eusko Legebiltzarrari bakarrik dagokiola. Lurralde Historikoen Legearen 7. artikulua foru-erakundeei esleitzen die ondare historiko-artistikoa, monumentala eta arkeologikoa kontserbatu, hobetu, berriztatu edo, hala badagokio, induskatzeko lanetan erakunde komunitatik sortutako arauak garatu eta betetzeko eskumena. Azkenik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak aitortzen



Azpeitiko Udala

duenez, udalerrien eskumena da udal ondare historikoa babestea, kudeatzea eta kontserbatzea.

6/2019 legearen 3.artikuluaren eskumen eremua zehazten da eta 4.puntuak honakoa zehazten du:

Hauek dira udalek beren udal-eremuan garatu beharreko eginkizunak:

- a) Babestu beharreko ondasunen hirigintza-katalogoak idaztea eta kudeatzea.
- b) Baimena ematea monumentu-multzoetan egin beharreko esku-hartzei, lege honek horretarako bidea ematen duen kasuetan.
- c) Udal-mugartean dauden kultura-ondasunen hur-hurreko aurri-egoeretan kalteak ekiditeko beharrezkoak diren neurriak hartzea, lege honetan xedatutakoarekin bat.
- d) Udal-mugartean dagoen kultura-ondarea sustatzea eta haren zabalkundea egitea.
- e) Lege honetan berariaz aitortutako gainerako eskumenak.

Ondorioz, Azpeitiko Udalak eskumena du udal-mugartean dagoen kultura ondarea sustatzeko.

Udalak onartu zuen 2023-2025 ekitaldietarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoak dirulaguntza zuzen bat bezala jaso du egitasmo hau 2025eko egokitzapenean (GAOn 2025eko urtarrilaren 30ean argitaratua).

**ANTXIETA ARKEOLOGIA TALDEA ELKARTEA**aren 2025 ekitaldiko egitasmoa gauzatzeko, Udalak 2025. ekitaldirako aurrekontuan 5.000€ ko dirulaguntza izenduna aurreikusi du.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 22.2 artikuluan xedatzen du Toki Administrazioiko aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahalko direla, betiere, dirulaguntza arautzen duen hitzarmenean eta dirulaguntzak arautzen dituen araudian jasotako baldintzetan.

Lege bereko 28. artikulua dirulaguntzak zuzenean emateko prozedura arautzen du, zehaztuz, hitzarmenak direla Toki Administrazioek aurreikusitako dirulaguntza izendunak bideratzeko ohiko tresnak. Hitzarmenek, legean xedatutakoa betez, aplikagarriak diren baldintzak eta konpromisoak jasoko dituzte.

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 65. artikulua arabera aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak izango dira, xedea, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna aurrekontuaren gastuen egoera-orrian berariaz zehaztuta dituztenak. Gainera, dirulaguntza horiek emateko prozedura ofizioz hasi daiteke edo eskatuta eta dirulaguntza arautzeko oinarri izaera izango duen hitzarmenarekin amaituko da.

Beraz, dirulaguntzen Lege Orokorrean eta aplikagarria den gainerako araudian ezarritakoa betez, bi aldeek hitzarmen hau izenpetzeko erabakia hartu dute, ondorengo baldintza edo xedapenen arabera:

## **1. HELBURUA.**

Hitzarmen honen xedea da **ANTXIETA ARKEOLOGIA TALDEA ELKARTEA**aren aldeko dirulaguntza zuzena arautzea, Izarraitz Aire Zabaleko Ikerketa egitasmoak jasotako ekimenak bideratzeko.

Elkarte horrek, 2025 ekitaldirako aurreikusitako jardueren egitasmoak bideratuko ditu:



Azpeitiko Udala

- 1 - Google MAPS, Google EARTH, erabiliz Izarraitz-ko ikerketa eremuko gauzak geoposizionatu.
- 2 - Geografiako Informazio Sistemak, GIS erabilita, informazio guztia bateratzea.
- 3 - GIS datu basea aplikazioak erabilita miaketa sistematizatua eta intentsiboa.
- 4 - ARANZADI-rekin aurreikusitako zundaketa arkeologikoak Izarraitz-ko eremuan.
- 5 - ARANZADI-k burutuko dituen estentsioko indusketetan elkar-lana, kolaborazioa.

## **2. ARAUBIDE JURIDIKOA.**

Dirulaguntza hau arautuko dute, errege dekretu honetan eta dirulaguntza emateko ebazpenean bereziki xedatutakoak ez ezik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako hura garatzen duen Erregelamenduan aurreikusitakoak ere, publizitate- eta lehia-printzipioei eragiten dienean izan ezik, bai eta, modu osagarrian, urriaren 1eko Administrazio Publikoen urriaren 1eko 39/2015 Legean (urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen Legea) aurreikusitakoa ere.

## **3. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA.**

Dirulaguntza hau zuzenean emango da, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2.c) artikuluan xedatutakoaren arabera. Dirulaguntza honen oinarri arautzaileak hitzarmen honetan zehazten dira, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 28.2 artikuluan eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 67. artikuluan xedatutakoa betez.

Udalaren Kultura Saila izango da laguntzaren organo-kudeatzailea, eta laguntzaren jarraipena Udalaren Kultura, Euskara eta Parte hartze Batzordea izango da.

Dirulaguntza honen publizitatea Udalaren web orrian eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean egingo da.

## **4. GAUZATZE ALDIA**

Diruz laguntzen diren jarduerako egiteko aldia 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte luzatuko da.

## **5. LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA FINANTZAKETA**

Dirulaguntza Udalaren 2025. ekitaldirako gastu-aurrekontuaren kontura finantzatuko da, 5.000 euroko zenbatekoarekin, 1.0401.481.334.00.01 2025 Transf. arruntak, Kultura aurrekontu-aplikazioaren kargura.

## **6. LAGUNTZA ORDAINTZEKO MODUA**

**Onuraduna izateko baldintzak:** Laguntzaren onuraduna izango den ANTXIETA ARKEOLOGIA TALDEA ELKARTEAK azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan ezarritako baldintzak bete ditu dirulaguntza kobratzeko.

**Ordainketa aurreratua:** Dirulaguntzaren %100en ordainketa modu aurreratuan egingo da, azaroaren 17ko 38/2003 dirulaguntzen legeko 34.artikuluan aurreikusten den moduan,



Azpeitiko Udala

dirulaguntzaren helburu diren jarduerak gauzatu ahal izateko beharrezko finantzaketa delako.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 42.2.d) artikuluan aurreikusitakoaren babesean, erakunde onuraduna bermea eratzetik salbuetsita geratuko da.

## **7. BESTE DIRULAGUNTZA, LAGUNTZA, DIRU-SARRERA ETA BALIABIDE BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA.**

Dirulaguntza hau bateragarria da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

Erakunde onuradunak aurreko paragrafoan aipatutako baliabideak lortu dituela jakinarazi beharko du. Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin beharko da, eta, nolana ere, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14.d) artikuluan ezarritakoaren arabera jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

Jarduerak, dirulaguntza honekin finantzatzeaz gain, funts propioekin edo beste dirulaguntza edo baliabide batzuekin finantzatu badira, justifikazioan egiaztatu beharko da funts horien zenbatekoa, jatorria eta erabilera diruz lagundutako jardueretan, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 30.4 artikulua arabera.

Dirulaguntzaren zenbatekoak, bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin izango du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu.

## **8. JUSTIFIKAZIOA**

Diruz lagundutako jardueren kontura egindako gastuak justifikatzeko epea bi hilabetekoa izango da gauzatze aldia amaitzen denetik, hau da, zuriak agiriak aurkezteko azken eguna 2026ko urtarrilaren 31a.

Dirulaguntzaren gastua justifikatzeko, erakunde onuradunak gastu-egiaztagiria aurkeztu beharko ditu **justifikazio-kontu erraztuaren modalitatean**, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 75. artikulua arabera.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 31. artikulua ezarritakoaren arabera, 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egindako gastuak egiaztatu ahal izango dira.

Justifikazio-kontuak honako informazioa eman beharko du:

a) Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzen duen jarduera-memoria, egindako jarduerak eta **lortutako emaitzak** adierazita. Herritarren parte hartze maila zehaztu beharko da. Emakume eta gizonen berdintasunari buruzko adierazleen informazioa eman behar da: jardueran parte hartu dutenen datuak generoa kontuan hartuz.

b) Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data adierazita. Dirulaguntza aurrekontu estimatu baten arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza



Azpeitiko Udala

batzuen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

d) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko gerakinen kasuan, bai eta horietatik eratorritako interesen kasuan ere.

3. Dirulaguntza ematen duen organoak, oinarri arautzaileetan adosten diren laginketa-tekniken bidez, egokitzat jotzen dituen egiaztagiriak ikuskatuko ditu, dirulaguntza behar bezala aplikatu dela arrazoiz frogatu ahal izateko. Horretarako, hautatutako gastuen egiaztagiriak bidaltzeko eskatu ahal izango dio onuradunari.

Dirulaguntza ematen duen organoak egoki irizitako egiaztagiriak eskatuko dizkio onuradunari, dirulaguntza behar bezala gauzatu dela egiaztatzeko.

Erakunde onuradunak bere gain hartzen du Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 30. artikulua dirulaguntza publikoak justifikatzeari buruz ezartzen dituen betebeharrak.

## **9. GASTU HAUTAGARRIAK**

Dirulaguntza ohiko funtzionamenduari lotutako kostu mota hauek edo antzekoak finantzatzeko erabiliko da:

1. – Langileen kostuak.

2. – Izarraitz Aire Zabaleko Ikerketa Arkeologikoa egitasmora bideratutako gastuak.

Erakunde onuradunak dirulaguntzaren xede den jarduera azpikontratatu ahal izango du, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 29.2 artikuluan ezarritako mugen barruan.

## **10. ALDAKETAK**

Dirulaguntza ematea eragin duten inguruabarrak aldatuz gero, onuradunak hasieran aurreikusita zeuden jarduerak zabaltzeko, kentzeko edo aldatzeko eskatu ahal izango du, arrazoiak azalduta.

Aldaketek ezin dute inola ere dirulaguntzaren zenbatekoa handitu.

## **11. ERAKUNDE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK**

Dirulaguntzaren erakunde onuradunak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko ditu, eta, bereziki, betebeharrak hauek izango ditu:

A) Helburua betetzea, jarduera egitea eta dirulaguntza emateko oinarri den portaera hitzarmen honetan eta dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako moduan, baldintzetan eta epean hartzea, dagozkion justifikazioak aurkeztuz eta Udal-Sailek (Baserriak eta Idazkaritza Sailek) jarduketak behar bezala ebaluatzeko behar diren datuak emanaz.

B) Organo eskudunak eskatutako gastuak justifikatzea fakturekin eta merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako dokumentuekin.



Azpeitiko Udala

C) Diruz lagundutako jardueretarako funtsen aplikazioaren kontrol- eta jarraipen-jarduketak onartzea, dokumentuak egiaztatuz eta Udal-sailek finantzatutako jardueren amaierako ebaluazioa eginez, bai eta Kontuhartzaitzak eta Kontu Auzitegiak funtsen finantza-kontrola egitea ere.

D) Dirulaguntza publikoak kudeatzeko prozedurak modernizatzen laguntzea, Udalak zehaztutako tresna informatikoak erabiliz.

E) Dirulaguntza jasotzen duten proiektuen eduki nagusia osatzen duten jarduerak kudeatzea eta zuzenean egitea.

F) Datuak babesteari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoa betetzea.

Alderdiek adierazten dute ezagutzen dituztela Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoari buruzko (3/2018) Lege Organikoari eta Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduari buruzko xedapenak, eta konpromisoa hartzen dute lege horretan aurreikusitako betekizunak betetzeko, hitzarmen hau dela-eta dauzkaten erabiltzaileen datuei dagokienez.

G) Dirulaguntzaren jatorria behar bezala identifikatzea eta jardueraren finantzaketaren izaera publikoa behar bezala zabaltzea. Horretarako, diruz lagundutako jarduera zabaltzeko erabiltzen den materialean, proiektuaren ondorio izan daitezkeen iragarkiak, kartelak eta argitalpenak txertatu beharko ditu, bai eta gauzatutako jardueren inguruko esku-hartze publikoetan ere.

H) Bere webgunean argi eta garbi adieraztea diruz lagundutako jarduerak Udalaren dirulaguntzen bidez gauzatzen direla.

## 12. EZ BETETZEAK ETA ITZULKETAK

Bidezkoa izango da jasotako zenbatekoak eta, hala badagokio, diruz lagundutako jarduerak sortutako diru-sarrerak eta dirulaguntzagatik sortutako interesak itzultzea, bai eta dagokion berandutze-interesa eskatzea ere, dirulaguntza ordaintzen denetik bidezkoa den egunera arte.

## 13. ZEHAPEN-ARAUBIDEA

Diruz lagundutako erakundeak dirulaguntzen arloan egin ditzakeen arau-hausteak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen IV. tituluan eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren IV. tituluan ezarritakoaren arabera mailakatu eta zehatuko dira.

Eta, hitzarmen honetan ezarritakoarekin bat datozela adierazteko, hala jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, jarraian agertzen direnek honelako hiru ale sinatu dituzte, jatorrizkoak, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean.

Nagore Alkorta Elorza  
Azpeitiko Udala

Azpeitiko Udala

ALKATETZA

Jose Ignacio Arrieta Unanue  
Antxieta Arkeologia Taldea Elkarte

J. I. ARRIETA